

# **Meztzaritza nekazari-herri batean. 1844-1982**

**Aitziber Gorrotxategi Eizagirre**  
**Historia Fakultateko ikaslea. Euskal Herriko Unibertsitatea**

xix. mendearen erdialdean, Aizarna herri txikiak bere industria-iraultza propioa bizi izan zuen, bertako mendietan ugariak ziren meategiak ustiatzen hastean; jarduera hori Urola bailaran ezartzen hasi berriak ziren zementu naturalaren fabriken garapenari oso lotuta egon zen.

la mende batez herrira aberastasuna ekarri ondoren, Gerra Zibilaren ostean meategien ekoizpenaren beherakada eragin zuen meategiak ixteraino.

In the middle xix<sup>th</sup> century, the small town of Aizarna went through its own industrial revolution, when the exploitation of the coalmines, which abounded in its mountains began. This activity was closely bound to the development of natural concrete factories which were being set up in the Urola Valley.

After nearly a century bringing prosperity to the town, the postwar years of the Spanish Civil War led to the downturn of the production and the shutdown of these mines.

## 1. Sarrera

Aizarnako, eta orokorrean, Zestoako meategi gehienak lignito ikatza lortzeko ireki ziren, nahiz eta burdina-meategiren bat ere ireki zen, eta baten bat zink-meategi bezala deklaratu ageri da erregistroetan.

Kokagune geografikoari dagokionez, meategiak Ertxina mendiaren bi aldeetara kokatzen dira, Aizarna zein Zestoa aldera begira.

Lignito hau batez ere Arroa Behean, baina baita Narrondo, Txiriboga, Agote eta Beduan ere, kokatzen ziren zementu-lantegietara iristen zen, lantegi horietan egiten zen *iraulika* (kare hidraulikoa) lortzeko, marga Aizarnako meategietatik ateratako lignitoarekin erretzen baitzen.

*Iraulikaren* ekoizpenaren prozesu osoa kontrolatzeko helburuarekin, meategi gehienak iraulika-lantegien jabeek erosi zituzten, eta sarritan, lantegi bakoitzak bere meategia zuen, horrela, *Sin Nombre* edo *Katre Mina*, *Corta y Cía S.L.*-ren jabegoa zen; *San Fermin* edo *Ibarre Mina*, *Uriarte y Zubimendi* lantegiarena, *Garestiya* edo *Ertxin Mina*, *Cementos Alberdi*-rena, eta horiek bezalako, beste hainbat kasu daude.

Ofizialki ireki zen lehen meategia *Mina Sin Nombre* edo *Katre Mina* izan zen 1844. urtean, eta atea ofizialki 1978an itxi zituen, nahiz eta dezente lehenagotik ustiatzeari utzia egon; urte batzuk geroago, 1856an *San Fermin* edo *Ibarre Mina* ireki ziren; horiei 1872an *Garestiya* gehitu zitzaion; eta xx. mendearen hastapenetan beste hainbat ireki ziren: *Luisito*, *Petra*, *La Esperanza*, *San Jose*, *Arbe*, *El Porvenir*, *La Cuarta*, *Santo Domingo*, *Alfredo*, *Echaide*, *Irabide*, *Aizpuru*, *Naparra*, *San Rafael*, *San Juan Bautista*, *San Pelayo* eta ustiatuak izatera iritsi ez ziren beste zenbait.

Garai oparoenetan (1914-1918), Aizarnako meategietan ehun lagun inguruk egiten zuten lan, meategi bakoitzean zortzi eta hogeita hamar artean, baina I. Mundu Gerraren amaierak eta Espainiako Gerra Zibilak eskariaren beherakada ekarri zuen, eta poliki-poliki langile-kopurua murrizten eta meategiak ixten joan ziren. 1970eko hamarkadan, azken ustiaketak ofizialki gelditu zirenean, meategiek urte asko zeramaten ezer gutxi ekoizten, batetik mineral onenak aspaldi agortu zirelako, eta bestetik, iraulika ekoizteari uztean, mineral hori ez zelako beharrezkoa zementu fabrikentzat.

1982an azken ahalegin bat egin zen Aizarnatik ikatza ateratzeko Francisco García-Munité-López enpresari nafarra eta Alfredo García Díaz eta Guillermo García Díaz asturiarren eskutik, baina proiektua bertan behera utzi zen bere errentagarritasun kaskarra frogatu zenean.

Lan honen bidez, herri txikien oroimena bizirik mantentzeko mikrohistoriak, hots, tokian tokiko gertakariak ikertzeak eta kontatzeak duen garrantzian sakondu nahi da, urteen joanarekin galtzen ari den memoria historikoa mantentzeko ahalegin bat eginez; gaur egungo mundu globalizatuan, normalean ikerketa-lan bat egiterakoan garrantzirik ematen ez zaion gai-mota da honakoa, baina herri-mailan oraindik interesa pizten jarraitzen du, ikertzea merezi duen zerbait bihurtuz.

Gaur egun Gipuzkoan galdurik dagoen jarduera ekonomiko baten oroimena ere berreskuratu nahi da, baliabide mineral askorik gabeko lurraldea izan arren, bertako meatzaritza-baliabideak gutxienez erromatarren garaitik ustiatuak izan baitira, nahiz eta meategien ustiaketa nahiko errealitate ezezaguna den.

Mikrohistoriak normalean oso gaitetik egiten diren mota desberdinetako aipamenak modu sakonagoan aztertzeko aukera ematen du, edo egiten ez direnak burutzeko. Historia orokor bat egiterakoan mota honetako gaiak erabat baztertuta uzten dira, lekuz lekuko ikerketa bat egitea ezinezkoa delako edo mota horretako lan batean herri-mailako bitxikeria hutsa gertatuko litzatekeelako.

## 2. Aizarnari buruzko zenbait zehaztapen

Aizarna Zestoako Udalerriko auzoetako bat da, Arroa-Goia, Arroa-Behea, Narrodo, Bedua, Iraeta, Txiriboga eta Lasao bezala; administratiboki Zestoako Udalaren baitan dago, eta hori ikertzeko eragozpena gertatzen da, kasu askotan iturri bibliografikoek ez dutelako auzoen arteko banaketa islatzen.

Bibliografiaren zati batek Zestoako lignito-meategiei buruz hitz egiten duenean, hein handi batean Aizarnaren mugetan aurkitzen direnez ari da, *Sin Nombre* edo *Katre Mina*, *San Fermin* edo *Ibarre Mina* edo *San Pelayo* meategien kasua; *Garestiya*, aldiz, Zestoako mugetan kokaturik dago.

Aizarna gaur egun auzo nekazaria da, bere orografia guztiz menditsua da, mendiz inguratutako bailara itxi batean kokatzen baita; beraz, ez da nekazaritzarako ingurunerik aproposena, horregatik, mende oso batean zehar (1844-1982 dira data ofizialak) meatzaritza ezinbesteko jarduera izan da herriko ekonomian, hainbat baserriarri beren errentak osatzeko aukera eman ziolako.

Agirien eta bibliografiaren bitartez frogatzea ezinezkoa den arren, pentsatzekoa da errenta osagarri hau zuten baserrietako bizi-maila nabarmen hobetuko zela. Eragin ekonomiko horretaz gain, eragin soziala ere garrantzitsua izango zuen, meategi hauetan, Aizarnako langileez gain, Zestoa, Zumaia edo Zarautzko langileak biltzen baitziren, harreman horren ondorioz, ideia eta ohitura berriei sarrerako atea irekiz. Beraz, esan daiteke meatzaritza Aizarnako lehen jarduera industrialia izan zela, eta azkena ere bai, behin meategiak itxita, nekazaritzara itzuli baitziren.

Aizarnarrentzat meatzaritza nekazaritzaren errentak osatzeko jarduera bat izan zen arren, diru-sarrera garrantzitsua zen eta aberastasun-iturri gertatzen zen; normalaren gaitetik sartzen zen diru horrekin lehen erosten ez ziren zenbait produktu erosiko zirela suposa genezake.

Zoritxarrez, onura horiek bibliografia edo agiritako datuekin frogatzea oso zaila da, asko jota, nolabaiteko ondorioak atera daitezke eraikuntza lanetarako baimenak bezalako agiriak aztertuz, normalean lan horiek dirua dagoenean egiten baitira.

Baina Aizarnaren kasuan, horrelako argibideak oso urriak dira, Zestoako Udal Agiritegian Aro Garaikideari dagozkion dokumentu gutxi gordetzen baita, Udalak

jasan dituen leku-aldaketengatik, eta gainera, gestio-mota hori ez delako udaletxe-ko bilkuren aktetan agertzen.

### 3. Meatzaritza Gipuzkoan: testuinguru orokor bat

Aizarnako lignitoaren meatzaritzaren garrantzi murrizta kontuan hartuta, bibliografian espero baino erreferentzia gehiago aurki daitezke; hala ere, kasu askotan erreferentziak errepikatu egiten direla aipatu behar da. Material hori kontuan hartuta, argi gelditzen da Gipuzkoan meatzaritza-jarduera hori ez dela Aizarnara eta lignitoaren erauzketara mugatzen.

Luis Castells-ek bere *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915* lanean (1987) honela dio:

Gipuzkoa lehengai mineraletan lurralde pobrea da, baina dagoenetik onura handia atera izan du, beraiek industria jakin batzuk ezartzea ahalbidetu zuten. Marga-geruzen ugaritasunak zementuaren industriaren sorrera bultzatu zuen, bereziki Urola ibaiaren ezker aldean (Zestoa, Zumaia), mota horretako fabrika gehienak hor kokatuko direlarik. Horretan lignito meategiek ere bazuten zerikusia, "garrantzia gutxikoa eta ez oso kalitate onekoa" izan arren, "bikain betetzen du bera bideratzen den helburua, eta industria aberats baten funtsezko elementua da, Gipuzkoako probintzian urte askotako izate erregularra daramana". Mineralen faltan, Gipuzkoak beste errekurtsio bat du, industriaren garapenerako ezinbesteko funtzioa betetzen duena, ura.

*Geografía General del País Vasco* bildumaren lehen alean, Gipuzkoako probintziari dagokionean, Serapio Múgicak Adán de Yarza geologoaren *Descripción física y geológica de la provincia de Guipúzcoa* lana darabil oinarritzat; honek Gipuzkoako aldi geologikoen deskribapena egiten du, berak dioenez, Lehen Aroko edo Paleozoiko garaiko haitz gutxi dago eta beren barne-sailkapena egitea zaila da, materialak modu nahasian aurkitzen direlako; Aro Karboniferoa Lehen Aroko azkena da, Gipuzkoaren ipar-ekialdean aurkitzen da, bere berezitasuna da geruzak kurba bat egin eta nahiko lodia dela, baina ez dela huilarik aurkitzen. Bigarren Aroko haitzaren gehiengoa Aro Kretazikokoa da, garai horretakoak dira Urola eta Deba ibaiaren arroak, eta Oria ibaiaren alderdi gorena eta baxuena, hor kokatzen dira Gipuzkoako lignito-meategiak.

Gipuzkoako meategiak Antzina Arotik ezagunak dira, erromatarrek hasi ziren ustiatzen eta bertakoek tradizio horri jarraitu zioten, adibidez Zeraingo berun-meategiak, Zegama eta Segura inguruko burdinarenak, Aralarren Arritzagako kobre-meategiak, edo Zaldibia edo Anoetan egindako urrea aurkitzeko ahaleginak. Jarduera honek diru-inbertsio handiak bultzatu zituen eta meategi-kopurua erruz ugaritu zen, gehienak denbora gutxiren buruan itxi baziren ere. 1907ko Meatzaritza Estatistikaren arabera, Gipuzkoan ustiaturiko meategietatik espato fluorra, gehienetatik burdin minerala, beruna eta zinka ateratzen ziren.

Lignito-meategiei dagokienez, gehienbat Aizarna (Zestoa) eta Hernanin daudela aipatzen du, mineral-geruzaren batzuk Urdaneta, Aia eta Asteasun ere aurkitzen badira ere. 1907an ustiatzen ari ziren hamar meategietatik 21.109 tona lignito atera zirela aipatzen da, Gipuzkoan ateratzen zen minerala nahikoa lurtsua zela eta kareharri hidraulikoaren erreketan erabiltzen zela esaten da.

Meategi horietan lan egiten zuen langile-kopurua ere aipatzen da, hirurogeita hamabi meatzari, barruan hirurogeita bat eta kanpoan hamaika.

Aizarnako zenbait meategik minerala erreperideraino garraiatzeko aireko tranbiak zituztela baieztatzen du.

Lignito hori marga erretzeko erabiltzen zen, zementu hidrauliko naturala lortzeko helburuarekin, batez ere Arroa inguruko zementu-lantegietan; 1859an, Gipuzkoan zementu hidrauliko naturala egiten zuten zortzi lantegi zeuden, bat Iraetan, beste bat Zumaian eta sei Donostian. 1907ko Meatzaritzza Estatistikaren arabera, urte horretan zeuden lantegiak eta ematen zuten errendimenduak honakoak dira:

### 1. taula.

Bedua, Zestoan	12.500 tona
Bidasoa, Irunen	1.600 tona
Brinkola, Legazpin	1.000 tona
Carmen, Arroan (Zestoa)	15.000tona
Concepción, Aizarnazabalen	8.556 tona
La Esperanza, Donostian	7.302 tona
Fagollaga, Hernanin	2.500 tona
Los Faisanes, Irunen	3.000 tona
Nuestra Señora de los Dolores, Zumaian	5.900 tona
Santa Cruz, Zumaian, eta Iraeta, Zestoan	14.420 tona
Urumea, Hernanin	6.500 tona
<i>Guztira</i>	78.278 tona

ITURRIA: Múgica, S. (1980): *Guipuzcoa 1º*, in Carreras Candi, F. (zuz.), *Geografía General del País Vasco*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Mariano Zuaznavarrek 1901eko apirilaren 23an “Lignitos de Guipúzcoa” artikulua argitaratu zuen *Revista Bascongada* aldizkarian. Erregai mineralen deskribapen bat eginez hasten da, landare-jatorria dutela dio eta, kasu askotan jatorrizko landarea identifika daitekeela. Deskonposaketa-fase desberdinak ikusten dira eratze-prozesuan jasan dituzten tenperaturaren, presioaren eta beste faktore batzuen arabera.

Zientziak harriatzak hiru talde handitan banatzen ditu: lignitoak, huilak eta antrazitak, azkenak inongo egitura organikoren aztarnarik ez dutenak dira. Gipuzkoan lignitoak antrazita izenaz ezagutzen dira, berarekin zerikusirik izan ez arren, ez geruzen adin erlatiboagatik, ez aurkitzen diren kareharri eta hareharrizko geruzengatik, ezta bere osaketa kimikoagatik ere. Lignitoak batez ere Zestoaren eta Hernaniren udal terminoan aurki daitezke, duten ur-proporzioa ez da %15 baino baxuagoa izaten eta beren osaketa aldagarria da, oxigeno-kantitatea %14'41etik %36'10 bitartekoa izan daiteke, hidrogenoarena %3'24tik %6'03ra. Lignitoaren eta antrazitaren ahalmen berogarria oso desberdina da, karbono-kantitatean duten desberdintasunaz aparte, hidrogeno- eta oxigeno-kantitateak ere oso desberdinak direlako, antrazitak lignitoak baino askoz ahalmen berogarri handiagoa baitu.

Gipuzkoan lignitoa kare hidraulikoak erretzeko soilik erabiltzen zen; lignitoaren ustiaketaren hazkundera Zumaia eta Donostiako zementu hidraulikoaren ekoizpenarekin eta salmentaren hazkunderarekin lotuta dago. Hori frogatzeko, Zuaznavarrek honako bi taula hauek darabiltza, lehenak Gipuzkoan ateratako lignito-kantiatea adierazten du, bigarrenak zementu hidrauliko edo naturalena:

### 2. taula.

1889-1890 urte ekonomikoa	10.066 tona lignito Gipuzkoan
1891-1892 urte ekonomikoa	13.515 tona lignito Gipuzkoan
1892, bigarren sei hilabetekoa	7.410 tona lignito Gipuzkoan
1893 urte naturala	10.954 tona lignito Gipuzkoan
1894 urte naturala	9.165 tona lignito Gipuzkoan
1895 urte naturala	8.889 tona lignito Gipuzkoan
1896 urte naturala	13.003 tona lignito Gipuzkoan
1897 urte naturala	18.477 tona lignito Gipuzkoan
1898 urte naturala	20.658 tona lignito Gipuzkoan
1899 urte naturala	20574 tona lignito Gipuzkoan

### 3. taula.

1889-1890 urte ekonomikoa	30.744 tona metriko
1891-1892 urte ekonomikoa	51.652 tona metriko
1892, bigarren sei hilabetekoa	26.063 tona metriko
1893 urte naturala	31.200 tona metriko
1894 urte naturala	59.782 tona metriko
1895 urte naturala	59.102 tona metriko
1896 urte naturala	61.890 tona metriko
1897 urte naturala	77.179 tona metriko
1898 urte naturala	4.901 tona metriko
1899 urte naturala	80.654 tona metriko

ITURRIA: Zuaznavar, M. (1901): "Lignitos de Guipúzcoa", *Revista Bascongada*, 377-378. orrialdeak, Donostia.

Aizarnan, Zestoako udal terminoaren barruan, lau lignito-geruza zeuden, zeharkako galeriek maila desberdinetan ebakiak. Lehen geruza 0'20 metro lodierakoa da eta lignito ona ematen zuen; bigarren geruza lehenengotik bost metrora dago eta, ez zen ustiatzeko egokia, oso nahasturik agertzen baitzen. Hirugarrena lehenengotik hemezortzi metrora dago, 1'30 metroko lodiera du eta erregai bikaina ematen zuen. Laugarrena hirugarrenetik hogeit hamar metrora dago eta metro bateko lodiera duen lignito onekoa da.

Geruzen lodierak eta lignitoaren kalitatea aldakorrak dira, inklinazio orokorra 30° sexagesimalekoa da, euren norabidea ipar-mendebaldetik hego-ekialderakoa da, eta iparralde-hegoalde norabidera hurbiltzen diren geruzak ere badaude, ha-reharriekin bat datozen estratifikazioarekin, 2'50 metro inguruko lodiera dutelarik; baina ohikoena lignitoa kretazikoko kareharrien eta margen artean aurkitzea da kasu honetan.

Gai hau ikertzeko beste iturri garrantzitsu bat Meatzaritza Estatistikak dira, beraietan urtero ireki eta ixten den meategi-kopurua, beraien izenak eta ekoizpena jasotzen baitira, probintzien arabera antolatuta.

Honen adibidea da 1911ko Meatzaritza Estatistika. Bertan, Gipuzkoako probintziari dagokion atalean, urte horretan zehar hiru meategiren jabego-tituluak eman zirela aipatzen da, 88 hektareako azalera guztira. Epe berdinean, berrogei meategi eta lau demasia kadukatutzat eman ziren, 1.128 hektarea, 13 area eta 98 zentiareako azalera guztira. Horrek hogeita hamazazpi meategi eta lau demasia kadukaturen emaitza ematen du, guztira 1.040 hektarea, 13 area eta 98 zentia.

4. taula.

SUSTANTZIAK	KONTZESIOAK							Fabrikak		
	EMANKORRAK			EZ-EMANKORRAK				Aktiboak	Inaktiboak	
	Meategiak	Lurtegiak	Hondartegiak	AZALERA Hektareak	Meategiak	Lurtegiak	Hondartegiak			AZALERA Hektareak
Albaildea.....	.....	...	...	.....	.....	...	...	.....	1	.....
Zementua.....	.....	...	...	.....	.....	...	...	.....	12	1
Zinka.....	1	...	...	60	54	...	...	518	.....	.....
Kobrea.....	.....	...	...	.....	3	...	...	30	.....	.....
Burdina.....	6	...	...	76	463	...	...	7.537	2	.....
Burdina eta besteak	.....	...	...	.....	34	...	...	369	.....	.....
Lignitoa.....	12	...	...	302	68	...	...	648	.....	.....
Beruna <sup>1</sup> .....	1	...	...	13	38	...	...	571	1	.....
Gatz arrunta.....	.....	...	...	.....	.....	...	...	.....	1	.....
<b>GUZTIRA.....</b>	<b>20</b>	<b>...</b>	<b>...</b>	<b>415</b>	<b>660</b>	<b>...</b>	<b>...</b>	<b>9.673</b>	<b>17</b>	<b>1</b>

ITURRIA: *Estadística Minera de España*: 1911. urtea, 247. orrialdea.

1. Fluor espatua ekoizten du.

1911n meategi emankorrek hemeretzi izan ziren, 1910ean baino bi gehiago, eta meatzaritza-lanetan jarduten ziren langileak 1911n 644 izan ziren, urtebete lehenago, aldiz, 619 ziren. Hala ere, meatzaritza-industriak sortutako balio osoa murriztu egin zen, hain zuzen ere 122.772'50 pezetatan.

Lignitoaren meatzaritzari dagokionez, 1910ean jardunean aritu ziren meategiak hamar izan ziren, 1911n horiei beste bi gehitu zitzaizkien, *Barquerito* Andoainen eta *Luisito* Zestoan. Kopuruan meategiak ugaritu egiten diren arren, emaitza 9.322 tona murriztagoa izan zen, gehienbat *Garestiya*-ren ekoizpena urritzearen ondorioz, izan ere, meategi horrek 1910ean 12.400 tona ekoitzi zituen, eta 1911n, aldiz, 3.060 tona baino ez zituen atera, 9.340 tona gutxiago alegia. Guztira, 25.439 tona ekoitzi ziren. Lortzen zen lignittoa oso lurtsua zen, Behe Kretazikoko margak erretzen erabiltzen zen, zementu naturala ekoizteko.

Iturri honen arabera, meategi txiki hauetan guztira laurogeita hemezortzi langilek egin zuten lan: barruan hamasei eta hemezortzi urte bitarteko bik eta hemezortzi urte baino gehiagoko hirurogeita hemezortzik; kanpoan, berriz, hemezortzi urtetik gorako hemeretzik; sei emakumek ere bertan lan egin zutela aipatzen da.

Ondoko koadroak 1910 eta 1911ko datuen arteko alderaketa egiten du, Gipuzkoako lignito-meategi bakoitzeko datuak kontuan hartuz:

5. taula.

MEATEGIEN IZENA	Ustiaketa tonatan		1911rako aldea +an edo -an, tonatan
	1910. urtea	1911. urtea	
3.405 Zenbakia. Barquerito	.....	900	+900
2.985 Zenbakia. Candidacho	2.500	2.450	-50
183 Zenbakia. Garestiya	12.400	3.060	-9.340
138 Zenbakia. La Cuarta	1.250	1.450	+200
2.746 Zenbakia. Luisito	.....	600	+600
2 Zenbakia. Luz	1.150	1.900	+750
327 Zenbakia. Petra	1.800	1.300	-500
23 Zenbakia. San Fermín	4.370	4.857	+487
453 Zenbakia. San Isidro- zabaltzea	2.220	1.142	-1.078
1.189 Zenbakia. San José	2.571	3.030	+459
19 Zenbakia. San Pelayo	3.750	2.000	-1.750
1 Zenbakia. Sin Nombre	2.750	2.750	.....
GUZTIRA	34.761	25.439	-9.322

ITURRIA: *Estadística Minera de España*: 1911. urtea, 251. orrialdea.

1931ko Espainiako Meatzaritza eta Metalurgikoak Estatistikaren arabera, urte horretan Gipuzkoan bederatzi meategi zeuden, bederatzi Zestoako terminoan eta bi Hernanin, 12.000 tonako guztizko ekoizpenarekin. Beraz, 1911 eta 1931ko



datuen artean, beherakada nabarmena ikus daiteke, hain zuzen ere 13.439 tonako beherakada izan zuen ekoizpenak hogei urtetan.

Beatriz Herreros Moratinosek bere *El patrimonio minero de Gipuzkoa* lanaren 78. orrialdean, Gipuzkoan bederatzi lignito-meategi zeudela aipatzen du, batez ere Aizarna (Zestoa) inguruan eta Hernanin eta inguruan ezarrita zeuden zementu-lantegietarako ustiatuak zirela.

### 3. Zenbait meategi esanguratsu

Lehen aipatutako meategietatik, batzuk besteak baino ospetsuagoak, esanguratsuagoak edo garrantzitsuagoak dira, batzuk euren ekoizpenetatik edo balio simbolikoetatik, edo besterik gabe, herritarren artean ezagunenak direlako. Meategi horiek honakoak dira:

- \* *Sin Nombre* edo *Katre Mina*: Ertxina Mendian dago, Aizarnatik Iraetara doan errepidearen alboan, Katre Mina izenez ezagutzen da, izen bereko baserriaren inguruan kokatzen delako. Esan bezala, ofizialki agertzen den lehen meategia da, 1844an hasi zen bere ustiaketa, eta ofizialki 1978ra arte iraun zuen irekita, praktikan ekoizpena lehenago gelditurik egon arren. Meategi honen jabea Agote auzoko *Corta y Cía* iraulika edo kare hidraulikoaren lantegia zen.
- \* *San Fermin* edo *Ibarre Mina*: Aizarnatik Iraetara doan errepidearen ondoan kokatuta dago, Ibarre izeneko baserriaren inguruan; Beduako *Uriarte y Zubillaga* lantegiaren jabea zen; 1856. urtean hasi zen lanean, eta ofizialki, itxi zen azken meategia da, 1970eko hamarkadaren bukaeran.
- \* *Garestiya* edo *Ertxin Mina*: Ertxina Mendian dago, Zestoara begira. Meategi hau 1872an ireki zen eta bere jabea Arroan kokatutako *Cementos Alberdi* iraulika edo kare hidraulikoaren fabrika zen; 1966an bere iharduera amaitutzat eman zen.
- \* *Erchina*: izen bereko mendiaren magalean kokatua, bere jabea Nicolás Aranburu zestoarra zen; 1874 urtean lortu zuen meategia ustiatzeko baime-na Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren eskutik.
- \* *Luisito*: Zestoatik Aizarnara doan galtzadatik oso hurbil kokatua, Ertxina Mendiaren oinean, ofizialki 1902an lortu zuen kontzesioa eta 1911n hasi zen lanean, eta 1966an itxi zen bere errendimendu kaskarrarengatik eta mineralaren kalitate urriagatik. Jabea Txiriboga auzoko Jose Antonio Odriozola izan zen.

### 4. Aizarnako lignitoaren helmuga: kare hidraulikoa

Iraulika, kare hidraulikoa edo zementu naturala, marga harriz, karez eta buztinez osatua, lignitoa erregai gisa erabiliz erretzetik lortutako emaitza da, ondoren hautsa lortu arte xehatua.

Zementu naturalaren ekoizpena Ingalaterran hasi zen XVIII. mendean; Gipuzkoan 1836an sartu zen, I. Gerra Karlistan soldadu ingelesek Donostiako hirirekin

defentsak eraikitzeke erabili zutenean, eta geroago langile ingelesek erabili zuten merkurioaren garraiorako metalezko ontziak egiten zituen Iraetako lantegian. 1846an José Leonardo Corta zestoarrak eta Manuel Linazasoro eta José María Zubimendi debarrek kare hidraulikoa eta arrunta ekoizteko lantegi bat sortzeko akordio bat sinatu zuten.

Kare hidraulikoa portu eta kaien eraikuntzan erabiltzen zen, oso azkar gogortu eta itsas uren eta ur selenotsuen eragina oso ongi jasaten zuelako. Iraupen-kualitate horiek, margaren kalitatetik, nahiz erregai gisa Aizarnako meategietatik ateratako lignittoa erabiltzetik zetozen, silize askoko bere errautsa, propietate puzolanikoduna, zementura barneratzen baitzen, hondatzea eragotziz.

Oinarrizko bi lehengaiak, marga eta lignittoa, bata bestetik hain hurbil egoteak eta Zumaiako itsas portuaren hurbiltasunak garraio-kostuak murriztu egiten zituen; ondorioz, Arroan eta bere inguruetan jarduera honetara bideratutako hainbat enpresa ezarri ziren, negozioaren errentagarritasunak erakarrita.

Marga lehegailu, pikotx eta palekin ateratzen zen eta harrobietatik hurbil kokaturiko labe bertikaletan bota (baserrietan karea egiteko erabiltzen zirenen oso antzekoak); behin marga ikatzarekin erreta, burdinoletan errota-harriek erabat xehatzen zuten, gero eskuz galbahe edo bahean pasatzen zen fintzeko eta upel eta zakuetan sartzen zen garraiorako prest.

1858-59 inguruan, ezagutzen den lehen kare hidraulikoaren lantegia, *Nuestra Señora de los Dolores*, ireki zen Arroan, irizpide industrialekin diseinatua; inguruan lehen aldiz, harria erretzeko labe jarraiak erabili ziren, goialdean zamaketa-aho bat zuten eta azpian erretako materiala ateratzeko zulo bat.

Marga zatikatua eta lignittoa, geruzetan txandakatuz botatzen ziren goitik, eta marga errea eta lignito hautsa nahasita ateratzen ziren behetik, gero lantegietako errotetara garraiatzen ziren, harri zirkularrek nahasketa hauts fin bihur zezaten, zementu naturala.

xx. mendearen lehendabiziko hamarkadan ekoizpena orekatu egin zen, eta beherakada hasi: batetik, garaiko krisi-egoera orokorragatik, eta bestetik, Portland zementuaren lehiagatik, zeina naturala baino kalitate hobekoa baitzen eta momentuko eraikuntzaren eskarrietara hobeto egokitua.

Gerra Zibilak enpresa hauek kinka larrian jarri zituen, izan ere, gatazkak eraikuntza-lanak eta obra publikoak gelditu egin zituen, eta gerra amaitu ondoren ez ziren inoiz errekuperatu; 1972an itxi zen azken lantegia, Beduakoa, bere instalazioen zati bat A-8 autopistak harrapatzen zuelako. Meategiak zementu-lantegiekin batera ixten joan ziren, zementu naturalik gabe lignittoaren beharrik ez zegoelako.

## 5. Meategiak eta meatzariak

Aizarnako lignito-meategietan erabiltzen ziren minerala ateratzeko moduak sinpleak ziren eta eskuzko tresnak bakarrik erabiltzen ziren, teknologiaren falta horren adibidetzat honako datu hau, 1956. urtean meategi bakar batek zuela argi-indarra.

Meategiak mendian goranzko norabidean barneratzen zen galeria nagusi baxu (1'70 metro inguru) eta estu (1'50 metro inguru) batek osatzen zituen, mineral-geruzak galeriak gurutzatzen zituenean, ezker-eskuin, norabide perpendikularrean, galeria txikiagoak irekitzen ziren, mineral geruzari jarraituz, hauetatik ateratzen zelarik materiala; sabaia pago- edo akazia-egurrezko zutoinek sostengatzen zuten eror ez zedin. Harrikatza galerien hormetatik lehegailuen bitartez askatzen zen, lehegailu hauek eskuz egindako zulo horizontal batzuetan sartzen ziren barreno edo pistoleta (burdinazko barra luzea, muturretako bat zapala eta zorrotza duena) erabiliz. Langile batek tresnari bi eskuekin eusten zion eta beste bik borrarekin jotzen zuten txandaka, lehenengoak barrenoari buelta ematen zion bitartean, metro bete inguruko zuloa lortu arte, orduan artilerioak dinamita zuloan sartzen zuen eta leherrarazi. Leherketak, normalean indar gutxikoak, eguerdiko hamabietan egiten ziren, meatzariak bazkaltzera joan aurretik, horrela, lanera itzultzen zirenean, gas eta kerik ez zen geratzen eta meatzariak galerietan arriskurik gabe sar zitezkeen.

Langile batek hormetan geratzen zen materiala ateratzen zuen pikotxa erabiliz, beste batek borra edo gabi batekin zati handienak apurtzen zituen, zati bakoitzak bi kilo inguru pisatzea lortu arte. Hormetatik askatutako materiala gaztaina-zurezko otarretan (kapalotarrak) jasotzen zen pertzuna (aitzur zabal bat) erabiliz, otarrak galerien zoruan zehar arrastaka eramaten ziren, banaka; galeria nagusian, ikatza meategien sarrerara eramango zuen bagoitxoetan kargatzen zen eta langile batek burdinbidean zehar bultzatzen zuen galeriaren beheranzko aldapaz baliatuz. Bagoitxo hauek egurrezko plataforma bat ziren, 2'20 metro inguru luzekoak eta 0'70 metroko zabalera, alboetan 45 zentimetro inguruko altuerako bi egurrek itxita, 40 zentimetroko zabalera zuen burdinbidetik irristatzeko burdinazko lau gurpil zituen; bagoitxo bakoitzak tona bat inguru ikatz garraia zezakeen. Askotan bagoitxoek bidetik irteten zuten, orduan meatzariak palaz bagoitxoa hustu, bidean zutik jarri eta berriro bete behar izaten zuten. Behin meategiaren ahora iritsita, biltegi batean husten ziren bagoitxoak, normalean eskuz, eta ikatza bere helmugara garraiatua izateko prest jartzen zen.

Hurrengo pausoa ikatza zementu-lantegietara eramatea zen. Hasieran, lan hori idiek tiratako gurdien bidez egiten zen; denborarekin, aireko tranbia sinpleak eraiki ziren, zalditxoek eutsitako kable bakarrekoak. Leku zailenetan kokatzen ziren meategietatik, ikatza errepideraino ardatz bakarreko gurdietan eraman behar izaten zen, eta handik lantegietara kamioietan.

Galeriak argitzeko, karburuzko kriseiluak eta grisú gasaren aurkako argiontziak erabiltzen zituzten; langileentzat arrisku nagusia grisú gas sukarría zen, batez ere alboetako galerietan pilatzen zena berauen aireztapen eskasagatik, eta erredura larriak eragiten zituen sortzen ziren suteen ondorioz.

Meategi bakoitzean zortzi eta hogeita hamar langile bitartean aritzen ziren lanean. Meatzaritza-jarduera baserriko lanekin bateratzen zuten, meatzari gehienak inguruko baserritarrak ziren eta. Aizarna bertako baserritarrez gain, Zestoa, Zarautz eta Zumaiako meatzariak ere hurbiltzen ziren Aizarnako meategietan lan egitera. Laneguna egunean zazpi ordukoa zen, goizeko zortzietatik hamabietara,

eta ordubetetatik lauetara, astelehenetik larunbatera egiten zen lan; horrela baserriarrek landako lana egin zezaketen urtearen zatirik handienean.

Ordaina, kasuaren arabera, finkoa edo lanaren arabera izan zitekeen, eta meatzariak Gizarte Segurantzaren alta emanda zeuden; 1947-48 inguruko datuen arabera, meatzariak egunean 25 pezeta inguru kobratzen zituen Aizarnako meategietan. Langile ordainduei, zerbitzu militarra meategietan burutzen zuten gazteak gehitu behar zitzaizkien, inguruko herrietako gazte ugari egin baitzuten soldaduska meategi hauetan, eta meatzari profesionalak ez zirenez, gainontzekoei ordaintzen zitzaizkien erdia inguru ordaintzen zitzaizkien.

Ez dirudi Aizarnako meategietan lan-gatazka gehiegirik gertatu zenik, baina Luis Castells historialariaren ustez, hori Gipuzkoaren industrializazio-prozesuko ohiko fenomeno da, batez ere Berrezarkuntza garaian (1875-1915). Berrezarkuntzan, Aizarnako meatzaritzaren aldirik oparoenean, gatazka sozialaren maila oso baxua izan zen, biztanleriaren desmobilizazioaren ondorioz, eredu politikoak parte-hartze askea eragozten baitzuen. Gatazka sozialik ez izatea ez zen gizarte-sistemaren integrazteko ahalmenearen ondorio, klase-gatazkaren kontzientzia ez zegoelako orokorturik baizik. Gipuzkoako industria-ezarkuntza ez zen beste leku batzuetakoa bezala gertatu, jabearen eta langilearen arteko adostasuna gailendu zen, ez zen eredu zaharraren eta berriaren artean Bizkaian sortu zen bezalako hausturirik gertatu. Beraz, 1916ra arte, Gipuzkoan gatazka sozialak isolatuak eta garrantzi gutxikoak izan ziren, industrializazio-ereduak hausturirik gabeko modernizazio bat ahalbidetu zuen, langileen eta patrioen arteko harremanek adiskidetsuak izaten jarraitu zuten; Castellsen hitzetan, langile gipuzkoarrek "langileria esanekoa eta asebetea" osatzen zuten. Bizkaian industrializazio azkarrak, lantegien pilaketak, inmigrazioak..., gatazka bultzatu zuten.

I. Mundu Gerra gizarte-bake horretan haustura-puntua izan zen, krisi ekonomikoa lehertu zen eta greben kopurua hazi. Aizarnako meategietan ere gainbehera hasi zen, zementuaren eskaria murriztu egin baitzen. Greba-kopurua ezagutzeko iturria 1904tik aurrera Gizarte Erreformatarako Institutuak argitaratzen zituen Meatzaritza Estatistiken Memoriak dira, baina balio gutxikoak eta fidagarritasun urrikoak dira. Greba-kopurua adierazten du; berak emandako datuen arabera, Gipuzkoan grebak egiten ziren, modu isolatuan erabiltzen zen tresna izan arren. Greba gehienak lan-eskakizunengatik egiten ziren: soldata-igoera, zortzi orduko laneguna, kaleratuen berronartzea, langileen elkartzeko eskubidea... Horrek guztiak gatazkaren oinarritzko fasea zela erakusten du.

Industria geografikoki modu sakabanatuan ezartzean, sektore anitzetan eta lantegi txikien bidez, gatazkarako aukerak murriztu egin ziren, patrioaren eta langilearen artean harreman zuzenagoa garatzen baitzen. Industrializazioak ez zuen ohiko gizartearekin hausturirik ekarri, bizigune eta bizimodu berrira pixkanaka egokitu ziren langile industrialak, trantsizioa erraztuz; langile-klaseak landa-munduko lan- eta esanekotasun-ohiturak industriara eramanez zituen, eta askok landa-mundura lotuta jarraitzen zuten, bertan bizitzen eta lurra lantzen jarraitu zutelako. Horixe da, hain zuzen ere, Aizarnako meatzarien kasua, gehienek baserrietan ere lan egiten jarraitzen baitzuten, are gehiago, nekazaritza zen euren jarduera nagusia eta meatzaritza osagarria. Bizi-mailan hobetze erlatiboa gertatu zen eta itxaropen

handiak sortu zituen prozesuak; gizarte-lasaitasun horretan zerikusia izan zuen lan-harremanak lehen fasean aurkitzeak; lan trinkoak langilearen autodiziplina bultzatzen zuen.

## 6. Garraioa: gurdietatik aireko tranbiara

1950eko hamarkada ingurura arte, ikatza idiek tiratako bi ardatzeko gurdietan garraiatzen zen zementu-lantegietaraino; baina meategi batzuetatik, lignitoa ardatz bakarreko gurdietan eraman behar izaten zen lurrezko bideetan zehar, 1868an eraikitako errepedieraino. Behin haraino eramanda, lurrera bota eta palaz kamioietara jasotzen zen; 1950eko hamarkadatik aurrera, sarrera erosoena zuten meategietako ikatza gasogenoak mugitutako kamioietan ateratzen hasi ziren.

Aizarnaren goialdean zegoen *San Pelayo* meategitik, ikatza aireko tranbia baten bidez jaisten zen herrira; garraio-sistema hau amaierarik gabeko kable batean zetzan, zutoinek eutsita; bere ibilbidea bi geltokiren artean egiten zuen, goikoa eta behekoa. Kable horretatik esekita, metalezko pieza luzeak izaten ziren, zirrikitu batzuekin, zeinetan, kablearekin kontaktuan larru zati bat jartzen zen, irris-tatzea eragozteko. Pieza horietako bakoitzetik kako bat esekitzen zen, eta kako horretatik lignitoz betetako gaztainondo-egurrezko otarra (lepotarra); behean, langileek lepotar hori hustu eta kakoan kateatzen zuten gora bidaltzeko.

*San Fermin* edo *Ibarre Mina*-n antzeko sistema bat ezarri zen, bi kilometro luzekoa, Aizarnazabal aurrean kokatutako *Txiriboga*-ko lantegira ikatza eramaten zuena. Sistema gailurreko behatokitik zaintzen zen, zerbait gertatzen bazen korneta jotzen zen eta mekanismoa gelditu. *Garestiya* eta *Sin Nombre* edo *Katre Mina*-k antzeko sistema bana zuten, minerala *San Fermin* meategira eraman eta handik Aizarnazabaleko errepedieraino eramaten zuten, handik kamioietan Iraeta edo Agoteko lantegietara garraiatua izateko.

## 7. Ogibide baten beherakada eta amaiera

30eko hamarkadan zementu naturala edo iraulikari Portland zementuaren lehia agertu zitzaion, kalitate hobekoa eta iraunkortasun gehiagokoa; eta hori ekoizteko, marga eta lignitoaz gain, kalitate oneko kareharria behar zen. Urola bailarako enpresa desberdinek inbertsio garrantzitsuak egin zituzten teknologia berrietara egokitzeko, baina krisi-garaia zen eta 1936an hasi zen Gerra Zibila ez zen onuragarri gertatu.

1954an *Cementos Alberdi S.A.* Arroan irekita irauten zuen zementu-enpresa bakarrak zementu naturala egiteari utzi zion Portland zementuaren ekoizpenean buru-belarri sartzeko. Urte horietan, Aizarnan oraindik ustiatzen ziren meategietan minerala ateratzeari utzi zioten, *San Pelayo*, *Echaide* eta *Luisito*-ren kanonak 1963ra arte eta *Garestiya*-rena 1966ra arte ordaintzen jarraitu zen arren, euren ekoizpena soilik sinbolikoa kontsidera daiteke. 60ko hamarkadan, *Cementos Alberdi S.A.* *Cementos Rezola*-k erosi zuen eta zementu zuriaren ekoizpenera bideratu zuen inguruko kareharriaren kalitate onagatik; makina berriek hasieran Zumaiaiko portura itsasontziz iristen zen antrazita erabiltzen zuten erregaitzat, eta gerora fuel-oila; beraz, Aizarnako lignitoa, gero eta kalitate kaskarragokoa, eta

lortzeko garestiagoa, erabat ordezkatu zen eta ekoizpena bertan behera utzi zen. Gainbehera horren lekuko dira *Luisito* eta *San Pelayo* meategien itxiera-aginduak, 1966. urtean emanak.

*Luisito* meategiaren jarduera modu ofizialean 1902an hasi zen eta 1966. urtera arte egon zen martxan. Urte horretan, Meatzaritza Erregimenaren Arautegi Orokorren 174. artikularen eta 172. artikularen azken paragrafoaren arabera, kadukatz-espeditentea bidaltzen zitzaion Gipuzkoako Meatzaritza Buruzagitzari.

Espediente hori ez zenez Buruzagitzan aurkitzen, eskabidearekin batera, meategiaren datuak bidali ziren: *Luisito 2.746 zenbakia* irekitzeko baimena Esteban Chaparteguik eskatu zuen 1901ean, eta 1902ko ekainaren 2an Gobernadore Zibilak espeditentea onartu zuen.

Meategiak Zestoako udalerrian lignitozko 15 hektarea bereganatu zituen, eta Esteban Chaparteguik eskaria José Antonio Odriozola Barrena Azpeitiko bizilagunaren izenean egiten zuela adierazi zuen. 1902ko ekainaren 21ean eskaria erregistratu zen, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak kontzesioa eman zion, eta uztailaren 26an José Antonio Odriozolaren izenean titulua igorri, 1940an jabegoa bere ondorengoan eskuetara igaro zen oinordekotza egiaztatuaren bidez, 1947ko urriaren 18an *Cementos A.B.C. S.A.*ri saldu zioten arte.

1952ko abenduaren 31n, *Cementos A.B.C. S.A.* enpresak izena aldatu zuen eta *Cementos Alberdi S.A.* izena hartu zuen. *Luisito*-ren eskualdaketa baimendu ondoren, artxibatu egin zen eta tramitea dataz pasa zelako kadukatuta gelditu zen.

1966ko abenduaren 22an, Meatzaritza Ministroak Meatzaritza Distrituko Buruzagitzari adierazi zion *Luisito 2.746* lignito-meategia Ogasun Ministraritzan kadukatua gelditu zela ordainketa faltagatik.

Azken bosturtekoan bere ekoizpena oso eskasa izan zenez, meategia kadukatutzat jotzea edo bera zegoen lur-eremua beste erabilera batzuetarako Estatuaren eskuetara pasatzea eskatu zen, eta Meatzaritza Distrituko Buruzagitzak ez zuenez Estatuarentzat probetxurik ikusten, lehenengoaren alde egingo zuela adierazi zuen. Meategietako Ingeniariburuak meategiaren garrantzia oso txikia zela eta ateratzen zen ikatz-kantitatea ezin zela ustiaketa serio baten oinarria izan adierazi zuen, gainera, bere kokagunea zela eta, zailtasun handiak izango zituela eta erregaien arloan zegoen lehiaren aurrean, lignito hau oso kalitate kaxkarrekoa gertatzen zela baieztatu zuen, eta meategia baliorik gabe utzi zen<sup>2</sup>.

Egun horretan bertan datatutako beste agiri batek *San Pelayo 19 zenbakia* meategia ere aurrekoaren egoera berdinean jartzen du, aurrekoa bezala, Ogasun Ordezkaritzak lurrazalaren kanona ordaindu ez izanagatik igorritako aginduaren bidez, Meategietako Ingeniariburuak ekoizpena oso urria eta beharrak asetzeko adinakoa ez zela baieztatu zuen; meategia Zestoako udalerrian kokatzen zen eta Juan Alberdiren alde titulatu izan zen; horrek, 1940ko urtarrilaren 27an, Fernando Fernández Sabater Donostiako Notarioaren aurrean, *Cementos A.B.C. S.A.* merkataritza-elkarterako emanaz, 1952ko abenduaren 31n, elkarte honek izen soziala

---

2. Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi Zerbitzua, 066-04 kaxa, E-268-1 signatura, 1966.

aldatu zuen, *Cementos Alberdi S.A.* izena hartzeko. Meategiak 503.091 metro koadroko azalera zuen, eta *Cementos A.B.C. S.A.* elkarterako emana izatea Gipuzkoako Meataritza Buruzagitzak 1938ko urriaren 11n onartu zuen<sup>3</sup>.

Portland zementuaren igoerak Aizarnako meataritzaren amaiera ekarri zuen berarekin, zementu naturala ekoizteari utzi zitzaionean, lignitoak beharrezkoa izateari utzi ziolako, bere berotzeko ahalmen urriak kareharria erretzeko gaitasunik ez baitzuen.

## 8. *Chelo 2<sup>a</sup>*: azken saiakera baten porrota

1982. urtean, Francisco García-Munité López nafarrak eta Alfredo eta Guillermo García Diaz asturiarrek Gipuzkoako Industria Ordezkaritzako (Meategi Saila) ingeniari buruari ikatz mineralaren azterketa bat egiteko baimena lortzeko beharrezko dokumentazioa igorri zioten, Industria Ministerioaren baimena lortzeko. Ikerketa horrek, berrogeita zortzi koadroko hedadura izango zuen eta *Chelo 2<sup>a</sup>* izenaz eza gutuko zuten. Pertsona horiek berauek eskabide berdina luzatu zioten Eusko Jaur-laritzako Industria eta Energia Kontseilariari data berdinean, Donostiako Gobernu Ordezkararen bitartez; agiri horrekin batera, proiektua, kokapen geografikoa, deskribapen geologikoa, berme ekonomikoak eta proiektuaren aurrekontua (2.738.000 pezetakoa) igorri zituzten.

Agiri horren arabera, *Chelo 2<sup>a</sup>* lignito mineralarentzako 4.656 zenbaki-dun ikerketa-baimena duena, eta berrogeita zortzi koadroko hedadura duena, Aizarna eta Zestoako lurretan kokatzen da, Gipuzkoako probintzian. Iparretik hegoaldera Zumarraga-Zumaia eskualdeko errepideak gurutzatzen du, 43 eta 46 kilometro eta-ko mugarren artean gutxi gorabehera, eta errepide horretatik abiatu-rik, Aizarnako herrira iristen den beste errepidetxo batek, nabarmenki ipar-ekialdetik hego-ekial-derako norabidean. Terrenoa nahiko malkarra da, 400 metro inguruko muinoekin, Ertxina mendia eta beste batzuk diren bezalakoa. Iparraldetik hegoaldera Urola ibaia doa eta zenbait errekatxo norabide desberdinetan.

Egin beharreko ikerketa-lanen artean, meategia aire zabalean egiteko baimena eskatzen zen, horrela langileen segurtasuna hobea izango zelako, gas eta hautsen pilaketa eta beste hainbat arrisku eragotziko zirelako. Horrek ingurunean izango zukeen eragina murrizteko, behin geruzen ezaugarriak aztertu eta apuntatu ondo-ren, estali egingo ziratekeen. Gainera, emankortasun urriko lurretan eta bidexke-tan egingo ziratekeen ikerketak, ahalik eta kalterik txikiena sortzeko.

Lan horiek burutzeko berme gisa, Francisco García-Munité Lópezek Asturiaseko Cangas del Narcea herrian zituen antrazita-meategiak eta Kordobako Espiel herrian hasi berria zuen harri-atz-meategia aurkeztu zituen, baita Guillermo García Diaz meategietako ingeniari teknikoaren lan-esperientzia luzea ere<sup>4</sup>.

Ikerketa horietako batzuk burutu ziren, baina lortu ziren emaitzak ez ziren espero bezain onak izan, eta proiektuak bertan behera utzi ziren 1984. urtean.

---

3. Eusko Jaur-laritzaren Agiritegi Zerbitzua, 049-08 kaxa, E-268-1 signatura, 1966.

4. Eusko Jaur-laritzaren Agiritegi Zerbitzua, 060-05 kaxa, E-268-2 signatura, 1982.

## 11. Ondorioak

Aizarna beti herri nekazaria izan den arren, meatzaritzak aztarna sakona utzi du herrian; jarduera honek teorian 140 urte inguru iraun zituen, 1844tik 1980 ingurura; praktikan, ordea, lignito-meategiak ustiatzen data hori baino apur bat geroago hasi zen eta zenbait urte lehenago amaitu, praktikan, 60ko hamarkada-amaierarako meategi guztiak gelditu baitzeuden.

Epe erlatiboki laburra den arren, herritarren oroimenean, batez ere adineko pertsonen artean, jarduera honen oroimena oso markatuta dago, herriaren aberastasun-iturri eta baserritarren bizimodua hobetzearen arrazoï gisa ikusten delarik; baina lanean ari ziren bitartean istripuak izan zituzten meatzariengatik ere gogoratzen dira garai hartaz.

Meategi gehien jabeak herritik kanpokoak ziren, eta enpresak kanpotik zuzentzen zituzten, batez ere bitartekarien bidez. Beraz, pentsatzekoa da ez meatzariak eta ez herritarrek ez zutela zuzeneko harreman gehiegirik izan eurekin. Gainera, enpresak herritik kanpokoak izateak berauei dagozkien agiriak ere herritik at daudela esan nahi du, eta horrek zaildu egiten du gai hau ikertzeko eta ezagutzeko lana.

Meatzaritza-jarduerak mende bat baino gehiagoz Aizarnako herriari lana eta aberastasuna ekarri zizkion, baina poliki-poliki ikatza agortzen joan zen, eta baita bere eskaria ere, zementu naturala pixkanaka-pixkanaka Portland zementuak ordezkatu baitzuen.

xx. mendeko 50eko hamarkadan erabat nagusitu zen krisia; jabeak meategien eta horiek ezarrita zeuden lurraren gaineko kanonak ordaintzeari uzten joan ziren, ba-tetik meategiak ez zirelako jadanik errentagarriak, eta, bestetik, zementu naturalaren ekoizpena bertan behera uztean lignitoaren beharrik ez zegoelako; beraz, gelditzen ziren meategiak pixkanaka-pixkanaka itxi ziren. 50eko hamarkadan Aizarnako industria-jardueraren amaiera izan zen, praktikan meatzaritza garai horretan amaitu baitzen; meatzari gazteenek beste jarduera batean eta beste leku batean bilatu behar izan zuten lana, batez ere lan hori baserriko jardueraren osagarritzat hartzen ez zuten langileek, garai oparoenetan zortzi eta hogeita hamar arteko kopuruan, meategiko lana euren diru-sarrerara bakarrik baitzen kasu askotan.

Beraz, Aizarnako herritarrak betiko jarduera ekonomikora, hots, nekazaritzara itzuli ziren; herrian industria-jarduerak agortu egin ziren, herritar askok bigarren eta hirugarren sektorean lan egiten duten arren, lantokia herritik kanpo baitute. Azken finean, kanpoan lan egiten beharrik jende asko bultzatu du bizilekua lanlekutik hurbilago hartzera eta horren ondorioz herria zahartu egin da eta beherakada demografikoa bizkortu.



## Bibliografia

- Arregi, M. (2001): "Eta meataritzako aztarnekin zer?", *Danbolin Herri Aldizkaria* 5. zkia., 12-13 orrialdeak.
- Múgica, S. (1980): *Guipúzcoa 1º*, Carreras Candi, F. (zuz.), *Geografía general del País Vasco*, Editorial la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- Castells, L. (1987): *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*, Euskal Herriko Unibertsitatea / Siglo XXI de España Editores, S.A.
- Estadística Minera de España: 1911. urtea, 247-253. orrialdeak.
- Estadística Minera y Metalúrgica de España: 1931. urtea.
- Herreros Moratinos, B. (1993): *El patrimonio minero de Gipuzkoa*, Donostia, 79. orrialdea.
- Urdangarin, C.; Izaga, J.M. (2001): "Arroa y el cemento: 150 años de historia", *Arroa-Behea: auzo gazte baten historia / Historia de un barrio joven*. 97-103, 109-111, 116-117. orrialdeak.
- Urdangarin, C.; Izaga, J.M.; Lizarralde, K. (2000): "Mineros de Aizarna", *Oficios Tradicionales IV*, Gipuzkoako Foru Aldundia (Ekonomia eta Turismo saila), Donostia. 93-102. orrialdeak.
- Zuaznavar, M., (1901) "Lignitos de Guipúzcoa", *Euskal Erria / Revista Bascongada*, XLIV. zkia., Donostia, 375-379. orrialdeak.

## I. Eranskina: meatzari batekin elkarrizketan

Jose Manuel Arregi 73 urteko jubilatua zestoarra da. Soldadutza Aizarnako *San Pelayo* meategian lan eginez bete zuen, baina bere familian hirugarren meatzari- -belaunaldia da bere anaiarekin batera, bere aitona eta aita meatzari profesionalak izan baitziren.

Elkarrizketa egiteko momentuan, bere iloba Manuel ere bertan zegoen eta zenbait datu osatzen lagundu digu, berak ere gai honi buruz zenbait ikerketa egin baititu.

Ikerketa historiko mota hau egiterakoan, ahozko iturriek balio kalkula ezina izan dezakete, lehen eskuko eta xehetasun handiko informazioa ematen dutelako, objektibotasun faltaren arriskua hor dagoen arren. Aizarnako meategien kasuan, ahozko iturriak erabiltzeko aurkitzen den arazo nagusia meatzari izandako pertsona gehienak hilik daudela da; hala ere, oraindik adinean aurrera doazen zenbait lagun aurki daitezke eta euren esperientzia informazio-iturri paregabea da, zoritxarez agortzeko zorian dagoen iturri-mota bat.

Ahozko iturriek normalean historia-liburuetan agertzen ez diren datu bitxi asko ezagutzeko aukera ematen digute, xehetasun asko liburuetan ez baitira jasotzen, espazio-faltagatik edo kontakizun orokorrago bat egin nahi delako, nabardura txikiekiko arretarik gabe.

### 1. Zein meategitan egiten zenuen lana?

Ni gutxi ibili nitzan minan, Aizarnan *San Pelayo*-n ibili nintzen, pare bat urte edo, ez dakit zenbat egin genituen.

### 2. Zer kargu zeneukan meategian?

Guk zer kargu edukiko genuen ba? Hantxe orduak pasatzea! Soldadutza ez egiteko ibili ginen eta ikatzik ez zuten behar, baina hor asuntxo txarra zegoen, lehen salaketak eta ere izan ziren, joanarazi egiten ziguten eta lanik ez genuen egiten, batzutan zer edo zer egiten genuen bazterrak txukuntzen edo, baina horrela kargua eduki genuenik eta esateko, nik zer esango dizut ba.

### 3. Gutxi gorabehera zein urtetan ibili zinen?

Zer urtetan? 50eko kintakoa naiz eta ez dakit urtebete geroago edo zer ematen zuten, zer jotzen du, 50, 51? 51tik 52, 53, hortxe, hor inguruan ibiliko ginen.

### 4. Zer baldintzatan egiten zenuten lana? Zer lan-ordutegi zenuten?

Mina orduantxe itxi zen eta kito, uste dut *Ibarre*-n (*San Fermin* meategia) artean jarraitu zuela, baina...

**MANUEL:** *Zu alde batetik azken meatzarietakoa izan zinen eta zuek meategi denetan lana nola egiten zen esan dezakezu, baina horrez gain, baita aitak eta aitonak nola lan egiten zuten ere, ze haiek bai izan zuten kargua; zuek denbora pasa aritu zineten, enpresa ixtekotan zela, baina haiek ez, eta zuk haiek egiten zuten lanaren berri badaukazu.*

Hori gurearen da desberdina izan huen, gero gainera nola Arroatik eta ere etortzen ziren... Trenean etorrira nola berandu iristen hituen, ordutegia ere beranduago..., baina hemengoa zen zortzietatik hamabietara eta ordubatetik lauetera, zazpi ordu egiten zituzten horiek, ez zortzi ordu beste langileek bezala, minan ordubete gutxiago izaten zen.

**MANUEL:** *Eguerdiko eten horrek bazuen bere azalpena, bazkaltzeko eta tiroaren hautsa gutxitzeko izaten zen ezta?*

Bai, bazkaltzeko ordubete eta bazkalondoan joandakoan ez zuen zerrikeria ederra egoten han, han toki txikian eta deskarga egindakoan, kea aldegin arte dinamita usain bat egoten huen!

**MANUEL:** *Noiz egoten zen handiagoa, arratsaldean edo?*

Goizean batere ez, bezperakoa jada alde eginda egoten huen, baina hamabietan tiroak egin, hamabietan edo hamabiak laurden gutxi aldean, eta ordubatean sartuta, pentsatu nola egongo zen.

### **5. Zer egiten zen eguerdian tiro bat eta arratsaldean bestea?**

Ez, zulo bakoitzean bi edo hiru agian; bi edo hiru lagun jartzen zirenean ere, beste bi edo hiru laguntzeko egoten ziren, agian beste batzuk goraxeago, horrela izaten ziren eta denean tiroak orokorrean, beti-beti ez, baina ia bai.

Bezpera iluntzean tiroak eginda utzi eta ikatza erdi harrotua egoten zen, orduan pikatxoi fenomeno horiekin dena erabat harrotu, goitik behera hartu eta bagonetara bota..., batzuk bagonetak kargatzen eta besteak dinamita sartzeko zuloak egiten berriz, eguerdian irteeran lehertzeko jarduten ginen, horixe, besterik ezer ez.

Lehen zegoena harrotu, tiroa botatakoa batzutan pixka bat harrotuta egoten zen, hura kendu, hura hartu eta erdi harrotuta zeudenak pikatxoarekin kendu, dena garbitu ahal zena eta bagonetara bota, hori goi samarrean izaten zen eta otarrari azpian txapa bat jarri, burdina edo jartzen zitzaion eta handik arrastaka goitik behera bagonetara.

Horixe, eta beste batzuk zuloa egiten eta, askotan han tokirik ez zen egoten bagoneta bete eta gero zuloak eta egitea ere hantxe ibili zen bikoteak egiten zuen askotan.

Lana bikoteka izan zen normalean, bat pistoletari eusteko eta bestea jotzeko, binakako lana izaten da, besteren beharrik ez zen izaten askotan; gero posteak sartzea eta ere izaten ziren, egurra sartzen zen arriskua zegoen tokietan, agian eutsi ez zion egiten, baina goia behera zetorren neurrian egurrak behera egiten zuen eta horrek esan nahi zuen "hori behera zetorrek eta alde hemendik"!

**MANUEL:** *Orduan han langile denek maila berdina al zuten?*

Bai, bai, bai. Beno aldea bai, lehen esan duguna, batzuk harrotuta zegoena kentzen eta beste batzuk zuloak egiten, gero dinamita kargatzailea ere, pixka bat espezialistak, gero urte gehiagoan zebiltzanak eta...

**MANUEL:** *Katapazarena (kapataza) jada izango zen kargu bereizia ezta?*

Horixe, materialak, dinamita eta beste gauzak inguratzen zituena zen, batzutan errieta egin eta ordua ere hark esandakoa, beste inork ez zuen erlojurik izaten han eta, lehenago irteten bazen lana lehenago bukatu zelako, gero kanpoan ere egoten ziren orduaren zain.

Gero, gurean kablean (aireko tranbia) erasten zen ikatza eta horren lana dena aitak eta beraiek egiten zituzten, aberiak eta prestaketak..., horiek lan handiak izaten zituzten; *Ibarre*-n zen beste kablea, hura Aizarnazabala zen, Txiriboga-ra, *San Pelayo*-n ere bazen, baina nik ez nuen ezagutu, trasteak eta bai, baina kablea bera ez, han gasolinazko motorra zen, hura ezagutu nuen, *Garestiya*-koa, berriz, bere pisuz erabiltzen zen, hark ez zuen motorrik eta batere.

#### **6. Meataritzan soilik aritzen zinen edo beste lan bat ere egiten zenuen?**

Gehienak baserritarrak ziren eta etxera joan eta jo eta ke lanean berriz, etxe-koak siestatik jaikitzeke orduan iristen ginen etxera eta han berriz beste jarduna, beti egun argiz amaitzen zen lana, gauez eta zerbait xelebrea ibili zen, baina gutxi, lehen esan dudana, zortzietatik hamabietara eta gero arratsaldean.

#### **7. Zer tresna erabiltzen ziren minerala ateratzeko?**

Tresnak? Dinamita eta pikatxoia ikatza ateratzeko, pistoleta eta maza zuloa egiteko, pertzuna otarrak eta kargatzeko, gero aparte bagonetak eta zegoen tokietan kablea, gero *San Pelayo*-tik idiekin erasten zuten.

#### **8. Nola garraiatzen zen ikatza bere helmugaraino?**

Lehen esan dudana bezala, kablean eta gero kamioiekin, *San Pelayo*-n gero idiekin ere bai, kablea kendu zutenean.

#### **9. Nor zen meategiaren jabea?**

Alberdi zen jabea, bai *Garestiya*-rena eta bai *San Pelayo*-rena, Ibarrekoa (San Fermin) eta Katrenekoa (Sin Nombre) Corta y Compañía-rena ziren, hor saltsa handia zegoen. Azkenean, denetatik iraulika egiteko ateratzen zen ikatza, Txiriboga, Beduan, Agoten...

Ez dakit gu baino urtebete gazteagoren bat ibili zen edo, baina gurekin bukatu zen, beno Ibarrekoak guk alde eginda gero ere jarraitu zuen, ez dakit zenbat denboran, baina asko ez. Guk alde egin genuenean ez genion kasu gehiagorik egin.

#### **10. Lana gogorra al zen?**

Lekua zen txarra, lana gogorra ez, ordu gutxi eta...

#### **11. Gutxi gorabehera zenbat irabazten zen?**

Gu soldadutza egiten ari ginen eta gutxiago, ez dakit ba hamahiru pezeta edo zer ematen zizkiguten egunean, baina gurea diferentea da, besteek gehiago irabazten zuten, Aizarnan erabat zebiltzan zahar haiek ez dakit nik zenbat

irabaziko zuten, gure aitak azkenean uste dut mila pezeta eskas edo irabazten zituela hilean, baina katapaza eta *minero primero* zen, uste dut katapazari gehiago eman behar zitzaiola, soldata handiena hark izango zuela.

Hori gainera, azken aldera jarri zioten, ordura arte, horrelakorik bat ere gabe egiten zuen lana.

Ni iraulika-fabrikari hasi nintzen lanean meatzari bezala, meategian nire beharrik ez zegoela eta, gero zerbait gertatu zen, jabea gobernadorearekin haserretu egin zela edo, eta *San Pelayo*-ra bidali ninduten, gero berriz iraulika-fabrikari sartu nintzen eta han gelditu nintzen.

## **12. Zenbat lagunek egiten zenuten lana meategian?**

Ni ibili nintzenean zazpi izango ginen, baina *Ibarre*-koan eta koadrila handia etortzen zen, gero Agotera eta, Beduara eta, eramaten zituzten, kamioi bat etortzen zitzaien bila, lana gutxitzean langileak sobratu egiten ziren eta ez zeukaten nolana bidaltzerik, horregatik eramaten zituzten iraulika-fabriketara lanera, beti enpresa berdinean.

*MANUEL: Estadistiketan agertzen da berrogeita hamazazpi lagun ere ibili zirela lanean, agian guztira izango zen.*

## **13. Otorduak eta enpresaren kontura izaten al ziren?**

Ez, etxetik eramaten zen, nik aitari bazkaria eramaten nion, umeak eta etxean zeukatenek janari berria eramaten zuten, gainontzekoek bezperakoa, azkenean, gu lanera hasi ginenean, denek bezperakoa eramaten zuten, gure aitak eta ere bai.

## **14. Meategiak ez ziren oso handiak ezta?**

Ez dakit zenbat luze ziren, lehenengotik harria egoten zen, hain zuzen-zuzen joaten zen, gero ikatza aurkitzean hasten zen hara eta hona, zenbat ba? Seiehun bat metro, barrura? Ez dakit ba.

## II. Eranskina: zenbait meategiren gorabeherak

### II.1. *Erchina*

*Erchina* meategia Nicolás Aramburu zestoarraren jabetza zen eta 1868. urtean izan zen erregistratua, eta lau urte geroago hasi ziren ustiatzen.

1897an Cándido Oleagak, Nicolás Arambururen izenean, meategi honen jabetza-tituluaren kopia bat eskatu zion Gipuzkoako Gobernadore Zibilarari, jatorrizkoa Arambururen etxea suntsitu zuen sutean galdu zelako; jabetasunaren frogak eta lekukoak aurkeztu ondoren, Gobernadore Zibilak kopia hori eman zion.

1898. urteko azaroan, Ignacio José Aramburuk, Nicolás Aramburu zenaren semeak, bera eta bere senideen izenean salaketa bat aurkeztu zuen *Gurruchaga Hermanos* enpresaren aurka, *Erchina* meategia ustiatzen ari zelako, jabeak izan gabe eta benetako jabearen baimenik gabe.

Salaketa horri erantzuteko, Meategietako Ingeniariburuak Zestoako Alkatzari txostena eskatu zion eta *Gurruchaga Hermanos* enpresari txosten horren erabakia onartzeko agindu. Zestoako Udal Agiritegiko erregistroetan ez da agertzen, ordea, auzi honi erreferentzia egiten dion inongo agiririk; beraz, ezinezkoa da auzia zertan gelditu zen jakitea.

Pedro Gurruchagak, *Gurruchaga Hermanos*-en izenean, Meategietako Ingeniariburuari adierazi zion *Erchina* lignito-meategian hasi zituzten lanak zenbait ikerketa lan zirela eta inola ere ez ustiaketa-lanak Nicolás Aramburuk *Erchina* meategiaren jabetza bere aitari saldu ziola baieztatu zion Ingeniariburuari, erdia 1868ko azaroaren 15ean eta bestea 1872ko apirilaren 16an, eta harrezkero Gurruchagatarrak izan zirela lurrazalaren eta errekaruaren kanona ordaintzen zutenak, nahiz eta uzte horri buruzko eskriturarik ez zen egin bere garaian.

Azkenik, Ignacio Aramburuk berak, behin baino gehiagotan, meategiaren jabea Pedro Gurruchagaren aita zela aitortu ziola zioen, eta bertan lana eskatu izan ziola, gero ikerkuntza-lanak bere baimenik gabe hasi zituelako kexatuz.

Gutun horren aurrean Ingeniariburuak auzia epaitegira eramateko erabakia hartu zuen, meategiaren jabea nor zen ez zegoelako batere argi.

1898ko abenduaren 13an, Pedro Gurruchagak beste eskutitz bat bidali zion Meategietako Ingeniariburuari, aurreko gutunean agindutako memoria, aurrekariak eta ziurtagiriak bidaltzen zizkiola esanez<sup>5</sup>.

Pedro Gurruchagak Meategietako Ingeniariburuari agindu zizkion agiriak ez dira gainontzeko dokumentuekin batera agertzen agiritegiko karpetan.

### II.2. *Garestiya*

Meategi hau Ertxina mendian dago kokatuta, Zestoako mugen barruan eta bertara begira, 1872an ireki zen eta Juan Alberdi, *Cementos Alberdi S.A.*

---

5. Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi Zerbitzua, 066 kaxa, E- 268-1 signatura, 1897.

enpresaren jabearena zen; horrek Aizarnako mugetan kokaturiko zenbait meategi ere erosita zeuzkan, San Pelayo eta Echaide.

1931. urtean Juan Alberdik *Garestiya* eta *Sin Nombre* edo *Katre Mina*-ren artean mugarriak jartzeko eskaria egin zuen, 1, 2 eta 8 zenbakidun mugarriak hain zuzen ere.

Meategietako Buruzagitzak, eskakizun horri erantzunez, Pablo Fernández Iruegas ingeniaria eta Juan Gutiérrez laguntzaile fakultatiboa bidali zituen lekura, lan hori burutzeko. Mugarri horiek ezartzeko, Ignacio Goenaga ingeniariak 1872an egindako neurketak hartu zituzten kontuan.

Jarduera horren lekukoak Juan Alberdi, *Garestiya* meategiaren jabea, *Corta y Cía*, alboan kokatzen zen *Sin Nombre* edo *Katre Mina*-ren jabearen izenean, Victoriano Olaizola eta bi meategien zuzendari fakultatiboa zen Santiago Irizar izan ziren.

Victoriano Olaizolak bere zalantza adierazi zuen, bere ordezkatuaren izenean, mugarriak *Sin Nombre* meategiaren esparruan ez ote zeuden, eta akta sinatu izanak ez zuela zalantza hori argitu zuenik esan nahi adierazi zuen, bere sinadurak ez zuelako ukatzen Meataritza Erregimenak ematen zizkion bere zalantza argitzeko eskubidea eta ahalmena. Akta hori lekuan ziren guztiek sinatu zuten 1932ko urtarrilaren 16an.

Lanak burutzeko aurrekontua honakoa izan zen:

#### 6. taula.

	PEZETAK
<i>Ingeniari aktuarioa</i>	
Bi dietagatik, bakoitza 40 pezetatan	80'00
72 kilometro trenbide, joan-etorria, 0'17 pezetatan	12'24
<i>Laguntzaile fakultatiboa</i>	
Bi dietagatik, bakoitza 28 pezetatan	56'00
72 kilometro trenbidegatik, joan-etorria, 0'15 pezetatan	10'80
12 Km errepide, 1 pezeta bakoitza	12'00
Bi peigatik bi egunetan, 7 pezeta bakoitza eta eguna	28'00
1908ko ekainaren 2ko Errege-aginduaren, 1920ko abuztuaren 12ko Errege-aginduak zabaldua, (C) apartaduaren ordainketa bereziagatik	320'00
GUZTIRA.....	519'04

Berarekin ados egonez gero, aurrekontu hau meategiaren jabeak ordaindu behar zion Meataritza Agintaritzari<sup>6</sup>.

6. Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi Zerbitzua, 028-03 kaxa, E-267-5 signatura, 1931.

### II.3. *Echaide*

1866an José Ramón de Echaidek Aizarna herriko Gastañazulo deituriko inguruan harrikatza aurkitzeko ikerketak egiteko baimena eskatu zion Gipuzkoako Gobernadore Zibilari.

Ikerketa horiek harrikatza aurkitzeko helburua zuten, putzu edo galerien bitartez egingo ziren Ramón de Sarasola Markinako bizilagunaren lurretan, bere baimenarekin, lurrazalean aztarnak agertzen zirelako. Eta jabego bakar bat erosi nahi zuen, mineralaren norabidearen arabera egokien zetorkion norabidean, beti ere meatzaritzako lege eta arauen arabera.

Buruzagitzan berrehun beilo errealeko kopurua ordaindu eta ordainketa-liburuetan erregistratu ondoren, ikerketak egiteko baimena eman zuen Gobernadoreak, urtebete edo lehenagoko epean minerala agertuz gero, eskari hori erregistro-mailara jasoko zuen.

1867ko azaroaren 15ean eskaera berdina aurkeztu zuen José Ramón de Echaidek, eta hogeitazko kopurua ordaindu ondoren, meatzaritzako lege eta arauen arabera onartua geratu zen lehen aipatutako baldintzetan<sup>7</sup>.

1881. urtean Gobernadore Zibilak *Echaide* meategiaren kontzesioa eman zuen José Ramón Echaideren alde. 1932ko azaroaren 21ean Juan Alberdi García meategi hau bere eskuetara igarotzeko eskatu zuen, eta urte horretako abenduaren 3an eman zion Gobernadore Zibilak.

1938ko urriaren 3an, Juan Alberdi García Meategi eta Erregaien Zuzendaritza Orokorrari *Echaide* meategia *Cementos A.B.C. S.A.* elkartearen eskuetara igarotzeko baimena eskatu zion, eta baimen hori urte horretako urriaren 11n iritsi zen.

*Cementos A.B.C. S.A. Cementos Alberdi S.A.* izatera igaro zenean, Honorio Alberdiren eskaerari erantzunez, *Echaide* meategia elkarte berriaren jabego izatera pasa zen, *San Pelayo* eta *Garestiya* bezala<sup>8</sup>.

### II.4. *Garestiya, Echaide eta Luisito-ren alokairua*

1950eko urriaren 25ean, Honorio Alberdi Lasak, *Cementos Alberdi S.A.* elkartearen eskudun eta kontseilari gisa, Meategi eta Erregaien Zuzendaritza Orokorrari *Garestiya, Echaide* eta *Luisito* meategiak, Zestoako terminoan kokatuak, Isidro eta Fidel Lizasori alokatzeko baimena eskatu zion.

Zuzendaritza horretatik meategi horiek bere garaian Juan Alberdiri emanak izan zirela erantzun zioten, eta *Cementos A.B.C. S.A.*ren eskuetara beharrezko espedientea lortu ondoren igaro zirela, 1938an Zuzendaritza horrek emandako baimenaren ondoren, eta enpresa 1953ko maiatzaren 12an izena aldatu zuen Zuzendaritza horren baimenarekin, *Cementos Alberdi S.A.* izatera pasa zela.

---

7. Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi Zerbitzua, 049-15 kaxa, E-268-1 signatura, 1866.

8. Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi Zerbitzua, 049-08 kaxa, E-268-1 signatura, 1966.



Zigortu eta Matxinoen Erregistro Orokorreko Agirien arabera, Isidro eta Fidel Lizaso Aguirre euren eskubide zibilen erabilera betean zeuden, beraz, erantzukizuna euren gain har zezaketen.

Hori guztia kontuan hartuta, Ingeniariburuak bi aldeen artean lortutako alokairu-akordioaren legeztapen administratiboa egiteko baimena eman zuen, 1950eko urriaren 25ean lortutako akordio pribatuaren arabera; bertan, *Cementos Alberdi S.A.* hiru meategi horiek alokatzeko zituen arrazoiak adierazi zituen, behin-behineko zementu naturala ekoizteari utzi zitzaiola eta Paramar zementuaren ekoizpena oraindik ez zela hasi, eta ondorioz, momentuz ez zeukala lignito horren beharrik.

Horregatik, meategiak Lizaso anaiei alokatu zitzaizkien, baina bere garaian ez zen tratu horren berri eman Meategi eta Erregaien Zuzendaritza Orokorrean. Arroan 1954ko abenduaren 16an sinatutako gutun batean, Honorio Alberdik kontratu hori legeztatze eskatu zion Zuzendaritza horretako buruari. 1955eko irailaren 19an, Meategi eta Erregaien Zuzendaritza Orokorreko Buruak, agiri guztiak aztertu ondoren, eskari horri baiezkua eman zion indarrean zegoen legediaren arabera.

Meategi hauek lantzeko egin beharreko proiektuak Lizaso anaiek egingo zituzten eta euren ordezkari izateko, notario boterearekiko eskudun bat izendatuko zuten. Lizaso anaiek ekoizpena hobetzeko zenbait lan egin nahi zituztenez, eta *Cementos A.B.C. S.A.* ez zuenez berauen zuzeneko ekoizpena urtebete baino gehiagoz bertan behera utzi nahi, kostuak bi alderdien artean banatzea adostu zuten. Egin nahi zituzten berrikuntzen berri enpresari eman behar zioten, kostuak zehaztuz eta horrek bere adostasuna eman behar zuen.

Lizaso anaiek saltzen zuten lignito tona bakoitzeko 27'50 pezetako kanona ordaindu behar zioten zementu-fabrikari, ordainketak hiru hilabeteko bakoitzagatik egingo ziren, eta kontratua 1952ko urtarrilaren 1ean amaituko zen, luzapenerako eskubidearekin.

Kontratua Lizaso anaien aldetik hausten bazen, zementu-fabrikak ez zuen berrikuntzak ordaindu beharrik izango eta hobekuntzak bere onurarako izango ziren. Zementu-fabrikaren nahiaren kontra, legediaren babesean alokairua luzatzen bazen, Lizaso anaiek *Cementos A.B.C. S.A.* ekoizpenerako behar zuen lignito guztia eman beharko zien, aurkakoa gertatzen bazen, kontratua automatikoki apurtuko zatekeen.

Ustiaketaren gastu guztiak Lizaso anaiek ordaindu behar zituzten, eta jarduera guztiak zementu-fabrikako teknikarien begiradapean egin behar ziren; aurkakoak kontratua etengo zuen. Meatzarien soldatak ere Lizasotarrek ordaindu beharko zituzten.

Zementu fabrikaren izen-aldaketak alokairuaren baldintzak bere horretan mantendu zituen<sup>9</sup>.

---

9. Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi Zerbitzua, 066-04 kaxa, E-268-2 signatura, 1960.